

8. KOSTUEN EGITURA

Gure enpresaren kostuak hainbat irizpideen arabera banatuta daude, esparru desberdinetako kostuetan bereizten:

- **Adreiluen kostu aldakorrak:**

Materiala	Kantitatea	Hornitzailearen prezioa	Kostua
Errauts-hegalariak	8 kg	0,017 euro/kg	0,14 euro
Area	5 kg	0,013 euro/kg	0,068 euro
Zuntz naturalak	0,3 kg	0,68 euro/kg	0,20 euro

Materialak egiteko, hornitzaile baten bidez egingo dugu, ez ditugu adreiluak gure kontuz egingo. Gure hornitzaile nagusiak Ecoearth Bricks & Blocks (Adreilu eta interlocking bloke ekologikoak fabrikatzen dituen enpresa, egosi beharrik ez duten eta isurketak murrizten dituzten lurrarekin eta errauts bolantearekin egina.) eta ISHA constructions (Fly ash-eko (errauts bolantea) interlocking blokeen fabrikatzailea, erresistentzia onarekin, morteroaren erabilera eta dimentsio pertsonalizagarrien aukerak minimizatzen dituen diseinuarekin.) izango dira.

Beraz, hornitzailearen prezioa (garraiorik gabe): **3,64 euro blokeko**.

- **Lauzien kostu aldakorrak:**

Materiala	Kantitatea	Hornitzailearen prezioa	Kostua
Errauts-hegalaria	3,5 kg	0,02 euro/kg	0,07 euro
Area	3 kg	0,015 euro/kg	0,05 euro
Aglomeratzailea	-	-	0,22 euro
Fibra naturalak	0,15 kg	0,80 euro/kg	0,12 euro
Ura+ gehigarriak	-	-	0,02 euro

Materialen kostua: 0,48 euro/unit

- **Ingurumen kostuak:**

Materialen ekoizpena	Energia-kontsumoa, lehengaien erabilera (bioplastikoak, birziklatutako plastikoak),
----------------------	---

	uraren kontsumoa
Garraioa	CO ₂ emisioak, erregaien kontsumoa, logistika ez-jasangarria
Ekoizpen-prozesua	Hondakin industrialak (piezen akatsak, moldeak), zarata-kutsadura, baliabide gehigarrien erabilera
Erabilera eta bizitza	Piezen erabilera mugatua, pigmentuen edo plastikoen birziklapen zailtasunak
Bizitza amaiera	Hondakin solidoak sortzea, birziklapen partziala, ekonomia zirkularrean integratzeko zailtasunak
Hezkuntza eta komunikazioa	Greenwashing arriskua, ingurumen-mezua ez bada argi eta eraginkor transmititzen

Gure produktuak, materialak eta energia kontsumitu arren, minimoak dira eta behar-beharrezkoa dena soilik erabiltzen dugu. Ez dugu baliabiderik alferrik gastatzen, eta diseinu modularrari esker hondakinak murrizten ditugu. Garraioan baita, saiaturako gara ahalik eta distantzia laburren egiten, eta banaketa tokitan antolatzea emisioak gutxitzeko. Ekoizpen prozesuan saiaturako gara hondakinak murrizten. Gure produktuaren bizitza luzatzeko itzulketa-sistema sortuko dugu, horrela erabiltzaileek pieza zaharrak bueltatu eta berrerabiliko ditugu. Birziklapen lokalarekin akordioak egingo ditugu, horrela hondakinak saihestuko ditugu. Amaitzeko tailer argiak egingo ditugu greenwashing arriskua ekiditeko, hau da ingurumen-jasangarritasuna faltsuki edo gehiegizko moduan irudikatzea.

- **Gizarte Kostuak:**

Gure enpresak gizarte-kostuak murrizten laguntzen du. Sute, uholde edo antzeko larrialdi-egoera baten ondorioz etxea galtzen duten pertsonen gastu sozial handiak sortzen dituzte administrazio publikoentzat, hala nola aldi baterako ostatuetan (hotelak, aterpetxeak), larrialdi-laguntzetan, osasun-arreta gehigarrian eta gizarte-zerbitzuen esku-hartzean.

Gure proiektuak lego moduko adreiluen bidez etxebizitza azkar, seguru eta behin-behinekoak eraikitzea ahalbidetzen du, larrialdi-egoeretan etxerik gabe geratu diren pertsonen irtenbide bizkorra emanez. Horri esker, administrazioek ez dute hainbeste baliabide erabili behar ostatu garestietan edo epe luzeko larrialdi-konponbideetan.

Ondorioz, gure enpresak gizarte-kostuak murrizten ditu, besteak beste, ostatuen gastua, gizarte-laguntzen beharra eta larrialdi-zerbitzuen gainkarga gutxituz. Gainera, etxebizitza egonkor bat izateak pertsonen osasun mentala, segurtasuna eta gizarteratzea hobetzen ditu, eta horrek epe ertain eta luzera gizartearentzako kostu txikiagoak ekartzen ditu.

- **Kostu aldakor orokorrak:**

- Batez besteko estatuko garraioa 0,60 – 1,20 euro/unitate da. Kamioiaren espazioaren arabera izango da honako kostua.
- LEGO motako adreilu ekologikodun hormaren kostua 68–78 USD/m²-koa da, m² bakoitzeko 16 bloke kontuan hartuta, eta obrako bloke bakoitzeko 4,5 euro inguruko prezioa du, morteroaren eta eskulan espezializatuaren beharrik gabe.
- Ekoizpenerako, Kareaga/Arteagabeitia gunean 1.200 m² inguruko nabe industrial bat planteatzen da, ongi komunikatua eta kamioientzako sarbidearekin, bulegoak, solairuarteak eta bainugela barne. Alokairua hilean 10.000 € ingurukoa da, baina 600 m² aukera dago hilean 5.000 €-ren truke, nahikoa produkzioarako, biltegitratzeko eta kudeaketa administratiborako.
- Logistikan, kamioi berriek 70.000 eta 150.000 € artean balio dute; erabiliek, berriz, 7.000 eta 50.000 € artean; eta erdi-atoi erabiliek, 17.000 € artean. Erreferentzia gisa, eskulanaren hileko soldata gordina 2.000 € ingurukoa da, hitzarmenaren eta esperientziaren arabera.
- Langileren inguruan, 2 kamioi gidari beharko dira gutxienez, 22.000 euroko batz besteko soldata jasotzen (soldata gordinak), 44.000 euro urteko.

- **Hasierako inbertsioaren kostuak:**

Kontzeptua	Kostuak
Hornitzailearen prezioa (garraiorik gabe)	3,64 € bloke bakoitzeko
Kamioi berrien kostua	70.000 € – 150.000 €
Kamioi erabilien kostua	7.000 € – 50.000 €
Erdi-atoi erabilien kostua	17.000 € ingurukoa
Eskulanaren batez besteko hileko soldata gordina	2.000 € (hitzarmenaren eta esperientziaren arabera)
Kamioi gidari baten batez besteko soldata gordina	22.000 € urteko

Proiektuaren hasierako inbertsioa	520.000 €
-----------------------------------	-----------

Materialen kostuak, hornitzaileak bloke bakoitzeko duen prezioa, garraioaren gastuak, 600 m²-ko pabiloi industrial baten alokairua, garraiorako erabilitako kamioi bat erostea, hasieran behar diren langileen soldatak eta jarduera martxan jartzeko oinarritzko gastuak kontuan hartuta, proiektuaren hasierako inbertsioa 520.000 eurokoa dela aurreikusten da. Kopuru horri esker enpresa modu egonkorrean hasteko aukera dago, lehen hilabeteetako gastuak estaltzeko eta ekoizpena zein logistika behar bezala antolatzeko, enpresaren bideragarritasuna arriskuan jarri gabe.